BASAURIRA ETORRI BERRI DIREN ESKOLA-UMEEI EUSKARA INDARTZEKO SAIOAK EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOAK.

AURREKARIAK, HELBURUAK ETA EGITASMOA KONTRATATZEKO JUSTIFIKAZIOA

Basauriko eskola-umeek eleaniztunak izatera iristeko bidea egiten ari dira. Guztiek ikasten dituzte gutxienez hiru hizkuntza: euskara, gaztelania eta ingelesa. Eta horietako askok beste hizkuntzaren bat dute etxean.

Eskola-ume horiek, hala ere, ez dute abiapuntu bera bide horretan. Hainbat ikasle Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo etorriak dira eta euskarara hezkuntza sistemaren bidez hurbildu dira, baina dagoeneko Lehen Hezkuntzan edo Bigarren Hezkuntzan iritsi dira horretara. Ikastetxeetatik eta Hezkuntza Sailetik ahalegin handia egiten da ikasle horiek ere gutxieneko hizkuntza gaitasuna garatu eta besteekin batera ikasketak egin ahal izan ditzaten, baina baliabideak mugatuak dira eta testuinguru soziolinguistikoak ere ez du lanketa hori errezten. Hau da, eskolaz kanpo ikasle horietako askok euskararekin harreman oso urria dute. Ezaugarri hauek dituzten ikasleen inklusioa erronka bat da herritarrentzat, hezkuntza sistemarentzat eta administrazioarentzat.

Gainera, hainbat faktore baldintzatzaile daude ikasle etorkinak hezkuntza sisteman erabat sartzeko. Lehena irakaskuntzako irakats-hizkuntza ikastea da. Ezinbestekoa da adingabeen kasuan hezkuntzako irakas-hizkuntzaren ezagutza bultzatu eta bermatzea. Hizkuntza ezinbesteko tresna da pertsonen arteko harremanetarako, gizartean integratzeko eta ikaskuntza jarraitzeko. Ikasle horien ikaskuntzako hizkuntza-beharrak behar adina ez bideratzeak, gainditzeko zailak diren eskola-atzerapenak eragin ditzake kasu askotan.

Basauriko ikastetxeetan, LHan D eredua da nagusi, herriko ikastetxeetan euskara da komunikazio hizkuntza; kalean aldiz, gaztelania da hizkuntza nagusia Basaurin. Horregatik, Basauriko Udalak euskararen erabilera sustatzen du familian eta eskolaz

CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE REFUERZO DE EUSKERA DESTINADO A LOS Y LAS ESCOLARES RECIEN LLEGADOS A BASAURI.

ANTECEDENTES, OBJETIVOS Y JUSTIFICACIÓN PARA LA CONTRATACION DEL PROGRAMA

Los niños y niñas escolares de Basauri están recorriendo el camino para llegar a ser plurilingües. Aprenden por los menos tres idiomas: euskara, castellano e inglés, y muchas de ellas tienen también algún otro idioma en su hogar.

Pero no todos los niños y niñas tienen el mismo punto de partida en ese camino. Muchos y muchas han venido de fuera de la Comunidad Autónoma Vasca y se han acercado al euskera a través del sistema educativo, pero ya han llegado a él en Primaria o Secundaria. Desde los centros educativos y el Departamento de Educación se hace un gran esfuerzo para que el alumnado también pueda desarrollar una mínima competencia lingüística y cursar estudios con normalidad; pero, los recursos son limitados y el contexto sociolingüístico tampoco facilita ese trabajo. Es decir, muchos de esos niños y niñas fuera de la escuela tienen muy poca relación con el euskera. La inclusión del alumnado de estas características supone un reto para la ciudadanía, el sistema educativo y la administración.

Además, la inclusión de estos y estas escolares está condicionada por multiples factores, entre los cuales destaca por su importancia el aprendizaje de las lenguas. Es imprescindible impulsar, y asegurar en el caso de las personas menores de edad el conocimiento de la lengua vehicular de la enseñanza. La lengua es un instrumento imprescindible para las relaciones interpersonales, para la integración social y para la continuidad del aprendizaje. El no encaminar lo suficiente las necesidades lingüísticas de aprendizaje de este alumnado puede provocar, en muchos casos, retrasos escolares difíciles de superar.

En los centros de Basauri, en la Educación Primaria predomina el modelo D, el euskera es la lengua vehicular en los centros de la localidad, mientras que en la calle el castellano es la lengua predominante en Basauri. Por ello, el Ayuntamiento de Basauri promueve el uso del euskera en la familia y en las actividades

kanpoko jardueretan, eta Udalak haur eta gazteen aisialdian eskaintzen dituen zerbitzuak euskaraz dira: udalekuak, ludotekak, gaztegunea, kirol-ikastaroak, etab

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak dirulaguntza eta programak ditu ikasle etorri berrien irakas-hizkuntza, euskara indartzeko, hauxek dira:

- **EUSLE programa**.
- **BIDELAGUN, ikastetxe publikoei zuzendutako eskola orduz kanpoko laguntza programa**.
- **Ikasle etorri berriei zuzendutako hizkuntza indartzeko programak (HIPIak) garatzeko dirulaguntzak**.

Basauriko ikastetxeek HIPI dirulaguntza jasotzen dute, eta batzuk martxan dituzte BIDELAGUN edota EUSLE programak eta antzekoak.

Bestaldetik, Basauriko udalak euskararen erabilera sustatzeko indarrean duen AROA planean, zerbitzu modura eskainiko dugun programarekin lotutako ekintza bi jaso dira Gobernantzaren eta Ezagutza/Gaitasunaren ardatzetan. Hauexek dira:

Helburu zehatza: Gizartean aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik.
Ekintza zehatza: "Euskara integraziorako giltza" programa mantendu eta hezkuntza komunitateko eragileak (irakasle, Ikasle, familiak, …) prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio esparruak zabalduz.

Helburu zehatza: Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.
Ekintza zehatza: Haur etorri berriei errefortzu eskolak indartu eta lehen lerrora ekarri: "Euskara integraziorako giltza" programarekin jarraitu.

Alde horretatik, programa hau EJko Hezkuntza Sailak eskaintzen dituen programak osatzera dator. Ume etorri berrien hizkuntza-jarduna lantzeko ekintza da, eskolaz kanpoko jarduera, eta izaera ludikoa du.

Izan ere, Basauriko udalak 2021eko abendutik 2022ko ekainera garatu zuen bere lehen esperientzia. Orduan, Enplegu planaren bidez Udalak 8 dinamizatzaile kontratau zituen "Euskara integraziorako giltza" izeneko

extraescolares, y los servicios que ofrece el Ayuntamiento en el tiempo libre infantil y juvenil son en euskera: colonias de verano, ludotecas, gaztegune, cursos deportivos, etc.

El Departamento de Educación del Gobierno Vasco cuenta con subvenciones y programas para el refuerzo del euskera como lengua vehicular del alumnado de reciente incorporación:

- Programa EUSLE
- Programa BIDELAGUN de apoyo extraescolar a centros públicos.
- Subvenciones para el desarrollo de programas de refuerzo lingüístico (PRL) dirigidos al alumnado de reciente incorporación.

Los centros educativos de Basauri reciben subvención PRL y algunos tienen en marcha programas como BIDELAGUN o EUSLE.

Por otra parte, en el vigente Plan AROA del Ayuntamiento de Basauri para la promoción del euskera se han recogido 2 acciones concretas relacionadas con este programa que ofrecemos como servicio, en los ejes de Gobernanza y de Conocimiento/Competencia. Los objetivos específicos y acciones recogidas son:

Objetivo específico: Desarrollar políticas lingüísticas diferenciadas para los ámbitos sociolingüísticos.
Acción concreta: "3 Mantener el programa "Euskara integraziorako giltza" y convertir a los agentes de la comunidad educativa (profesorado, alumnado, familia...) en parte activa del proceso, sensibilizando, ampliando los ámbitos de comunicación.

Objetivo específico: Proporcionar facilidades y aportar recursos para que la población de origen extranjero pueda aprender euskera.
Accioón concreta: 2. Reforzar y dar prioridad a las clases de refuerzo para niños/as recién llegados/as: continuar con el programa "Euskara integraziorako giltza".

En este sentido, este programa viene a complementar los programas que ofrece el Departamento de Educación del Gobierno Vasco. Es una actividad extraescolar de carácter lúdico para reforzar las actividades lingüísticas de los niños y niñas recién llegados.

De hecho, el Ayuntamiento de Basauri desarrolló su primera experiencia entre diciembre de 2021 y junio de 2022. En ese momento, a través del Plan de Empleo, el Ayuntamiento contrató a 8 dinamizadores para poner en marcha el programa "Euskara integraziorako giltza" en los

programa martxan ipintzeko herriko LHko ikastetxeetan, B Era berean, 2023-2024ko ikasturteko martxotik maiatzera bitartean eta hurrengo ikasturte oso bietan, esperientzia berriak garatu ditugu, errefortzu programaren garapen-baldintzak ezarri dituztenak, eta orain ezarri nahi dugun eta kontratatu nahi dugun zerbitzu hau garatzeko esperientzia gisa balio izan dizkigunak.

Esperientzia horren gaineko balorazioak aztertu ondoren, eta herriko ikastetxeetan ikasle etorri berriekin bizi duten egoera aztertu ondoren, ume horiei euskara indartzeko saioak emateko zerbitzua martxan jartzea erabaki da. Basauriko udalak eskola orduetatik kanpo euskara erabiltzeko, hizkuntza gaitasuna hobetzeko eta hizkuntzarekin harremana indartzeko aukera eskaini nahi die etorri berriak diren eskola-umeei.

centros de EP del municipio, en colaboración con la Técnico del Berritzegune. Y asimismo el curso 2023-2024, de marzo a mayo y los 2 cursos posteriores se han desarrollado nuevas experiencias que han establecido las condiciones de desarrollo del programa de refuerzo lingüístico y han servido de experiencia para desarrollar este servicio que ahora nos ocupa y queremos contratar.

Tras el análisis de las valoraciones de estas experiencias y la situación de los centros educativos de la localidad con el alumnado recién llegado, se ha decidido poner en marcha este servicio de refuerzo del euskera. El Ayuntamiento de Basauri con este programa pretende ofrecerles a estos niños y niñas llegados recientemente, la oportunidad de utilizar el euskera fuera de la escuela, mejorar su competencia a través del uso y reforzar su relación con la lengua.

ZERBITZUAREN XEDEA ETA HELBURUAK

Zerbitzuaren **helburu nagusiak** dira:

- Iritsi berri diren haurren integrazio sozial eta komunitarioa bultzatzea, tresna gisa euskararen erabilera, komunikazio-hizkuntza erabiliz.
- Eskola-ume etorri berriei euskararen erabilera eta gaitasuna indartzen laguntzera begira eskola orduz kanpoko jarduera bat eskaintzea.
- Jarduera horren bidez eskolaz kanpo euskararekin harremana izan dezaten erraztea eta euskararekiko motibazioa eta atxikimendua indartzea.

FINALIDAD Y OBJETIVOS DEL SERVICIO

Los objetivos principales del servicio son:

- Favorecer la integración social y comunitaria de los niños y niñas escolares recién llegados utilizando como herramienta el uso del euskera, la lengua vehicular.
- Ofrecer una actividad fuera del horario escolar que contribuya a potenciar el uso y la competencia en euskera de los niños y niñas escolares recién llegados.
- Facilitar a través de esta actividad el contacto extraescolar con el euskera y reforzar la motivación y la adhesión al mismo.

Helburu zehatzak:

Eskola orduz kanpoko jarduera den neurrian, eta umeei zuzendutakoa, ludikotasuna eta jardueran zehar ondo pasatzea, euskararekin esperientzia positiboak izatea izango da ardatzetako bat. Baina, ez da aisialdi jarduera bat soilik, hizkuntzaren lanketa da programa eskaintzearen arrazoi nagusia. Horri guztiari begira, honakoak dira helburu zehatzak:

Objetivos específicos:

En la medida en que se trata de una actividad fuera del horario escolar, dirigida a los niños y niñas, uno de los ejes será el carácter lúdico y la diversión a lo largo de la actividad, tener experiencias positivas con el euskera. Pero no es sólo una actividad de ocio, el trabajo de la lengua es la razón principal por la que se ofrece el programa. De cara a todo ello, los objetivos específicos son los siguientes:

Euskararen erabileraren bidez gizarte- eta komunitate-integrazioa lortzea.

A través del uso del euskera conseguir la integración social y comunitaria.

Euskara gaitasuna indartzeari begira:

De cara a reforzar el conocimiento del euskera:

a) Euskararen erabilera bermatzeko irizpide argiak eta estrategia eta baliabide egokiak erabiltzea.
b) Ikuspegi komunikatiboaren bidez hizkuntzaren lanketa egitea, eta horri begira ahozkoa oinarri duten metodologia aktiboak eta parte hartzaileak erabiltzea.
c) Erabilera sustatzera begirako lanketa eta gaitasunera begirako lanketa errubrika edo ebaluazio tresnen bidez jasotzea.

Euskararekin harremana indartzera begira:
a) Euskararekiko atxikimendua indartzera begira eta euskara bere egiten laguntzera begira motibazioa indartzeko jarduerak egitea eta mezu egokiak transmititzea.
b) Parte hartzaileen jatorria eta hizkuntza-ibilbidea kontuan hartuz, eleaniztasunaren aldeko mezuak ematea eta dakizkiten edo inguruan dituzten hizkuntzei balioa ematea.

3. FUNTZIONAMENDUA.

EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

Programak ikasturtea hartuko du. Saioak 2026ko urrian hasiko dira, eta 2027ko maiatzaren 31ra arte luzatuko dira.
Euskara indartzeko saioen ordutegia eskolaz kanpokoa izango da: 17:00etatik aurrera, eta ahal izanez gero udalerriko Kultur Etxe eta Gizarte Etxeetan eskainiko dira saioak. Udalak zehaztuko ditu ume talde bakoitzarentzat lekuak eta ordutegiak.

PARTE-HARTZEA

Eskola-ume etorri berri modura hartuko ditugu aurreko hiru ikasturteetan Basaurira heldu berri direnak. Hau da, orain kontratatuko dugun zerbitzua, 2026-2027 ikasturtean garatuko dena, 2023-2024, 2024-2025 eta 2025-2026 ikasturteetan etorri berri izan diren eskola-umeei zuzenduta dago.

Euskara indartzeko saioetan parte hartzeko plaza-kopurua mugatua eta itxia izango da. Hau da, ezin izango dute saio hauetan parte hartu interesa duten eskola-ume guztiek. Ikastetxeetako Zuzendaritza taldeak, eta udaleko Gizartekintzako teknikariek proposatuko diote Euskara atalari ze eskola-

a) Utilizar criterios claros y estrategias y recursos adecuados para garantizar el uso del euskera.

b) Realizar el trabajo del lenguaje desde el punto de vista comunicativo, utilizando metodologías activas y participativas basadas en el lenguaje oral.

c) Recoger, mediante rúbrica o instrumentos de evaluación, el trabajo orientado al fomento del uso y el orientado a la capacitación

De cara a reforzar la relación con el euskera:
a) Realizar actividades y transmitir mensajes adecuados para reforzar la motivación y potenciar la adhesión al euskera y favorecer su asimilación.
b) Dar mensajes a favor del plurilingüismo, teniendo en cuenta el origen y la trayectoria lingüística de las personas participantes, y poner en valor las lenguas que conocen o que les rodean.

3.FUNCIONAMIENTO

CALENDARIO Y HORARIO

El programa es de curso escolar. Las sesiones comenzarán en octubre de 2026 y se desarrollarán hasta el 31 de mayo de 2027.
Los horarios de las sesiones de refuerzo del euskera serán extra-escolares, a partir de las 17:00 horas, y se organizarán en preferentemente en Casas de cultura y Centros cívicos. El Ayuntamiento determinará los lugares y horarios para cada grupo de niños y niñas.

PARTICIPACIÓN

Tomaremos como escolares recién llegados a Basauri a los y las llegadas a Basauri en los tres cursos anteriores. Es decir, el servicio que ahora contrataremos, que se desarrollará en el curso 2026-2027, está dirigido a los y las escolares recién llegado durante los cursos 2023-2024, 2024-2025 y 2025-2026.

El número de plazas para participar en las sesiones de refuerzo del euskera será limitado y cerrado. Es decir, no podrán participar en estas sesiones todos los y las escolares interesados. La Dirección de los centros y el personal técnico del Departamento de Acción Social del ayuntamiento propondrán al Departamento

umek etaa ze umek parte hartuko luketen programan. Horretarako, ikastetxeek euskara indartzeko saio hauen beharra duten Lehen Hezkuntzako 1. eta 2 zikloetako ikasle eta ume etorri berrien zerrenda osatuko dute, eta zerrenda horretan daudenek baino ezin izango dute parte hartu. (aurreko puntuan, zerbitzuaren xedean adierazi dugu programari begira zeintzuk diren ikasle edota ume etorri berri modura hartuko direnak), eta Gizartekintzako teknikariek haien proposamena egingo lukete, zerbitzua jasotzeko beharra duten umeena.
Plaza guztiak beteko ez balira, kontuan hartuko dira ikastetxeek salbuespen modura programan sartzeko ikasleen gainean egindako eskaerak.

Euskara qué escolares participarían en el programa. A tal efecto, los centros elaborarán una relación de los y las escolares de reciente incorporación de 1º y 2º ciclo de Educación Primaria que requieran estas sesiones de refuerzo del euskera, en la que únicamente podrán participar aquellos que se encuentren en dicha relación (en el punto anterior se indica cuáles son los y las escolares que se consideran de reciente incorportación) y los técnicos y técnicas de Acción Social realizarán su propuesta sobre los niños y niñas a incluir en el servicio.
Si hubiera plazas libres se tendrán en cuenta las peticiones de los centros escolares sobre casos excepcionales de escolares que necesiten este refuerzo.

Talde bakoitzean gutxienez 6 eta gehienez 12 ume egongo dira, dinamizatzailearenganako harremana eta interakzioa ahalik eta altuena izateko. 2026-2027 ikasturtean gehienez 6 talde osatu ahal izango dira. Programan parte hartzeko prest eskola-ume gehiago egongo balitz, udaleko teknikariek erabakiko dituzte aplikatu beharreko lehentasun irizpideak, ikastetxeetako arduradunei entzun ondoren.

Cada grupo estará compuesto por un mínimo de 6 y un máximo de 12 niños y niñas, con el fin de mantener el mayor contacto e interacción posible con la persona dinamizadora. En el curso 2026-2027 se podrán formar un máximo de 6 grupos. Si hubiera más niños/as y/o alumnos/as dispuestos a participar en el programa, los criterios de prioridad a aplicar serán decididos por los técnicos municipales, oídos los responsables de los centros.

Talde bakoitzak gutxienez 2 saio jasoko ditu astean, eta saio bakoitza gutxienez 60 minutukoa izango da.

Cada grupo recibirá al menos 2 sesiones semanales, con una duración mínima de 60 minutos cada una.

Programa martxan hasi orduko aurkezpen ekitaldia antolatuko da programan parte hartuko duten umeen familientzat.

Al inicio del programa se organizará un acto de presentación del programa para las familias de los niños y niñas participantes en él.

4. ZERBITZUAREN NONDIK NORAKOA

EUSKARA, INTEGRAZIORAKO GILTZA programa kudeatu, koordinatu eta dinamizatzeko zerbitzuaz arduratuko den enpresak honako lan hauek gauzatu beharko ditu gutxienez:

Programa kudeatzeko eta koordinatzeko zerbitzua
Enpresa esleipendunak koordinatzaile-arduradun bat izendatuko du. Bera izango da programan parte hartuko duten Ikasle taldeen kudeaketa egingo duena familiekin harremanetan. Koordinazio orokorraz arduratuko da, eta programa pedagogikoa diseinatuko du. Ikasle taldeetan euskararen

4. NATURALEZA DEL SERVICIO

La empresa encargada del servicio de gestión, coordinación y dinamización del programa EUSKARA, INTEGRAZIORAKO GILTZA deberá realizar, al menos, las siguientes tareas:

Servicio de gestión y coordinación del programa.

La empresa adjudicataria nombrará un coordinador/a-responsable. Esta persona será la encargada de realizar la gestión de los grupos de alumnado participante en el programa de acuerdo con las familias. Se encargará de la coordinación general y diseñará el programa pedagógico. Realizará el seguimiento del uso del euskera en los grupos de alumnado, así como de

erabileraren jarraipena egingo du, eta asistentziarena ere. Udaleko Euskara atalarekin harremanetan egongo da, programaren gainean behar den informazio guztia emateko.

la asistencia. Estará en contacto con la sección de Euskera del Ayuntamiento para ofrecer toda la información que se precise sobre el programa.

Koordinatzaileak, Hezkuntzarekin zerikusia duen unibertsitate gradua izango du: Lehen Hezkuntza, Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, edota gradu bikoitza Haur eta Lehen Hezkuntzakoa; C1 titulua euskaraz edo baliokidea (apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua); eta gutxienez 2 urteko esperientzia ikasleentzako hizkuntza indartzeko programa batean koordinatzaile gisa.

El coordinador o coordinadora tendrá un grado universitario relacionado con la educación (Educación Primaria, Pedagogia, Educación Social, o doble Grado en Educación Infantil y Primaria), título C1 en euskera o equivalente (Decreto 47/2012, de 3 de abril) y experiencia mínima de 2 años como coordinador o coordinadora u organizadora de un programa de refuerzo lingüístico dirigido a escolares.

Saioen dinamizazio zerbitzua.
Zerbitzua modu egokian emateko Koordinatzailearekin batera hezitzaile taldea (hezitzaile kopuru nahikoa) egongo da. Haiek izango dira errefortzu saioak prestatu eta emango dituztenak, eta taldeen ardura izango dutenak.

Servicio de dinamización de las sesiones.
Para la adecuada prestación del servicio, junto con el coordinador/a habrá un equipo de educadores y educadoras en número suficiente que prepararán e impartirán las sesiones de refuerzo y serán responsables de los grupos.

Hezitzaileek Aisialdiko begirale titulua eta ondorengo zerrendan jaso ditugun unibertsitate graduren bat izango dute: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Pedagogia eta Gizarte Hezkuntza; edota Lanbide Heziketako Gizarte eta Kultur zerbitzuen arloko goi mailako titulua izango dute. Gradu titulua ez badute, gradua izateko azken mailan ikasten ibiliko dira. Euskaraz gutxienez B2 titulua izango dute edo baliokidea.

El personal educador tendrá el Título de monitor o monitora de tiempo libre y un grado universitario en Educación Infantil, Educación Primaria, Pedagogia o Educación Social, o estarán en posesión de la titulación de grado superior de Servicios Socioculturales de Formación Profesional. Si no tuvieran el título de grado se encontrarán cursando el último curso de los mismos. En euskera tendrán como mínimo el titulo B2 o equivalente.

Era berean, zerbitzuko langile izan, eta lanean adin txikikoekin harremanetan dauden guztien aurrekari penal espezifikoen egiaztagiri negatiboak aurkeztu beharko ditu enpresak, hain zuzen ere, sexu-delituei buruzkoak. Hala egiteko xedatzen du Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzea arautzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak.

Asimismo, la empresa deberá aportar documentación acreditativa de los antecedentes penales negativos de delitos sexuales de todas las personas trabajadoras del servicio que tengan relación laboral con menores. Así lo dispone la Ley 26/2015, de 28 de julio, de modificación del sistema de protección a la infancia y a la adolescencia.

Kontratuaren xede den prestazioaren berezko ezaugarriek eskatzen dute, zerbitzuaren garapenean, lan- eta harreman-hizkuntza euskara izatea, familiekiko harremanetan izan ezik, horietan euskara eta gaztelania erabiliko baitira.
Modu berezian zainduko da koordinatzailearen eta hezitzaile-taldearen arteko harremana, bai eta hezitzaileen

Las características intrínsecas de la prestación objeto del contrato exigen que en el desarrollo del servicio la lengua de trabajo y de relación sea el euskera, salvo en la relación con las familias en la que las lenguas utilizadas serán euskera y castellano.

Se cuidará de forma especial que la relación entre coordinador/a y equipo de educadores, así como entre el personal educador entre ellos, y

artekoa ere, eta, jakina, hezitzailearen eta ikasleen artekoa euskaraz izatea.

Lanarekin lotutako txostenak euskaraz idatziko dira udaleko Euskara Atala hartzaile denean, eta euskaraz eta gaztelaniaz zabalpen orokorrerako direnean.

Programazioa:
Ikasturte osorako programazioaren diseinua enpresa esleipendunaren betebeharra izango da.
Programazioan zehaztutako edukiak, beti ere, modu ludiko/didaktiko batean landuko dira: hiztegia lantzeko dinamikak, komunikazioa eta ahozkotasuna lantzeko ariketak, zenbait gai lantzeko jolasak (esamoldeak, zenbakiak, egiturak, aditzak,…), euskaraz gozatzeko zenbait ekintza (jolasak, eskulanak, teknologia berriak, antzeslanak…), euskal kultura lantzeko ginkanak, kurturartekotasuna (jolasak, errezetak,…) antzerkia, euskal jai eta ohiturak, eskulanak, abestiak, hizkuntzarekin jolasak, eta abar.
Hiruhilabeterik behin herriko liburutegietara, herriko elkarteetara eta abar irteerak egingo dira, herrian euskaraz egiteko duten zerbitzuak eta aukerak gertutik ezagutzeko hezitzaileen laguntzarekin.

Taldeak martxan jarri eta jarraipena egin:
Parte hartzaileen datu-basea kudeatzea (asistentzia, altak, bajak, egunekoaren fitxa, asebetetze galdetegiak, jarraipena, koordinazioa, …).

Programaren jarraipena egitea:
Enpresa esleipendunak hiru hilean behin eta ikasturtearen amaieran, egindako jardueren eta taldeen egoera eguneratuaren inguruko txosten zehatza aurkeztuko du Udalean. Txosten horretan balorazio kuantitatiboa eta kualitatiboa jasoko da: taldeen asistentzia, helburuen jarraipena eta betetze maila, taldeen osaera eta euretako bakoitzean dagoen parte-hartzaile kopurua, eta abar.
Arrazoizko justifikaziorik gabe eskola-umeak asistentzia falta badu, dagokion hiruhilekoaren amaieran zerbitzuan baja eman ahal izango da, eta bere plaza libre geratuko litzateke beste eskola-ume bat sartu ahal izateko.

por supuesto entre educador/a y alumnado sea en euskera.

Los informes relacionados con el trabajo se redactarán en euskera cuando el destinatario sea el Área de Euskera del ayuntamiento, y en euskera y castellano cuando sean para difusión general.

Programación:
El diseño de la programación para todo el curso será obligación de la empresa adjudicataria.

Los contenidos definidos en la programación se tratarán de una manera lúdica/didáctica: dinámicas para trabajar el vocabulario, ejercicios para trabajar la comunicación y la oralidad, juegos para trabajar diferentes temas (expresiones, números, estructuras, verbos,...), acciones para disfrutar del euskera (juegos, manualidades, nuevas tecnologías, obras de teatro...), yincanas para trabajar la cultura vasca, interculturalidad (juegos, recetas,...) teatro, fiestas y costumbres vascas, manualidades, canciones, juegos con el idioma, etc.

Trimestralmente se realizará una salida a las bibliotecas, asociaciones del municipio, etc. para conocer de cerca distintos servicios y recursos dirigidos a ellos en euskera en el municipio, con la ayuda de los educadores y educadoras del programa.

Puesta en marcha y seguimiento de los grupos:
Gestión de la base de datos de participantes (asistencia, altas, bajas, ficha diaria, cuestionarios de satisfacción, seguimiento, coordinación, ...).

Seguimiento del programa:
La empresa adjudicataria presentará trimestralmente y al final del curso en el Ayuntamiento un informe detallado de las actividades realizadas y de la situación actualizada de los grupos. En dicho informe se recogerá una valoración cuantitativa y cualitativa de la asistencia a los grupos, el seguimiento y cumplimiento de los objetivos, la composición de los grupos y el número de participantes en cada uno de ellos, etc.
En caso de falta de asistencia continuada sin justificación razonable, al final del trimestre correspondiente se podrá dar de baja al niño o niña del servicio, y su plaza quedará libre para la incorporación al programa de otro niño o niña.

5. ZERBITZUA ESKAINTZEKO BALIABIDEAK

AZPIEGITURAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Programa aurrera eramateko azpiegitura fisikoak Udalak jarriko ditu.

Enpresa esleipendunaren ardura izango da programa behar bezala aurrera eramateko materiala jartzea: saioetan erabiltzeko materiala, jolas eta dinamiketarako baliabideak eta baliabide teknologikoak, telefonoa, ordenagailua, etab.

5. RECURSOS PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO

INFRAESTRUCTURAS Y RECURSOS MATERIALES

Las infraestructuras físicas para el desarrollo del programa serán aprotadas por el Ayuntamiento. Serán de responsabilidad de la empresa adjudicataria la dotación del material necesario para la correcta ejecución del programa: material a utilizar en las sesiones, recursos para juegos y dinámicas, y medios tecnológicos necesarios, teléfono, ordenador, etc.

Kontratazio honen bitartez sortzen den lana udalarena izango da, eta entitate adjudikaziodunak ezin izango du kontratazio agiri honetan deskribatutako helburuak ez diren beste xede batzuetarako erabili.

El trabajo que se genere mediante la presente contratación será del ayuntamiento y la entidad adjudicataria no podrá destinarlo a fines distintos de los descritos en este pliego de contratación.

ARANTZA ARANBURU OLABARRI - 11907799D

Firmado digitalmente por ARANTZA ARANBURU OLABARRI - 11907799D
Fecha: 2026.05.12 14:44:56 +02'00'